

ANIMALIEN BABESARI BURUZKO VIII. EUSKAL JARDUNALDIAK



Argazkia: Fermín Esparza

BILBAO | 24 | 25 | 26 | 2015eko azaroa
‘La Bolsa’ Udaltegia | 19:30ean

Babeslea



Antolatzailea



Animalien Babesari buruzko VII. Euskal Jardunaldiak lekuz aldatzen badira ere, ardatza zein helburu berbera dakartzate. Honela izanik, erronka ditugu eztabaida eta formakuntza, beti ere `gizakiak ez diren´ animaliei ematen diogun tratua eta baita haiekiko paradigma etikoak aldatzeko egokitasuna ere oinarri harturik.

LEHEN SAIOAK dakarkigu zenbait hedabidek egun sarritan aipatu ohi duten sigla bat: TTIP. Gizarte honetako gehiengo zabal batek ezagutzen ere ez duen bitartean, eragile eta aditu ugari ari dira azpimarratzen sigla honen atzean etor zitezkeen ondorioak: baita animalien babeserako arloan ere.

BIGARREN SAIOAK uztartu egiten ditu banan banan indar propioa duten bi errealidade: *ekologismoa* eta *feminismoa*. Biak elkartzetik sortzen da aldaketa tresna indartsua benetan: *ekofeminismoa*. Ikuspuntu (¿berri?) hau zapal dutako taldeak defentsan oinarritzeko saiakera du helburu. Puntu honetatik aurrera, emakumeek, animaliek eta ingurumenak hausnarketarako gunea osatzen dute.

Eta **HIRUGARREN SESIOAN** jorratuko da gaur dagoen debate irekirik sutsuenetarikoa: *tauromakia*. Garai orotako artista eta intelektualen inspiraziorako iturri agorrezina izan bai, baina esan beharra dago beti egon zela `eztabaidapean´. Oraingo hedabideetan behin eta berriz ageri da debate gisa, iritziz publikoak zein alderdi politikoek esandakoa hartuta. ¿Zer gerta daiteke tauromakiarekin etorkizun hurbil batean?

Garai berriak bizitzen ditugu, eta eredu moral zaharretako batzuk izugarri azkar aldatzen ari dira. Beraz, `animalien auzia´ delakoa ezin da atzean geratu bidaia honetan. Horrexegatik jarraitzen dugu pentsatzen *Jardunaldi* hauen funtsezko ezaugarria, batez ere, eremu didaktiko eta eraikitzailetik aldi berean datorrela: elkarren arteko ideien eta iritzien trukaketa, azken finean.

astearte, azaroak 24

‘TTIP’ DELAKOA, BAITA ANIMALIEN ESKUBIDEENTZAT ARAZO LARRIA ERE

FLORENT MARCELLES ^[*]

Egun, Europear Parlamentuan EQUOren bozeramailea. Halaber, *#StopTTIP* izenpeko kanpaina bultzatzaileetako dugu. TTIP deritzonaren inguruko zenbait iritzi artikuluren egilea da, *‘El TTIP, un peligro para los animales’* nabarmen daitekeelarik. *#SaveTheBulls* izenburuko kanpainari ere sostengua eman dio. Beronek Europak tauromakiari emandako diru-laguntzarekin bukatzea du helburu.

Oraindik ere askok ‘TTIP’ siglen esangura ez jakin arren, indarrean jartzeak gizakiontzat, animalientzat eta ingurumenerako ondorio larriak ekar zitekeen. EBren eta AEBen arteko tratatua da, merkataritza eta inbertsioak ardatza dituelarik. Jakin badakigu honek zer dakarren: bi aldeetako entresa multinazionalen herritarron lan, gizarte eta ingurumen eskubideak urratzea.

Baina oso gutxi hitzegin da TTIP deritzonak ‘beste’ animaliei nolako eta zein neurritako kalteak eragingo dienari buruz. Eta komeni da ahalik eta laisterren, aipatu Tratatuak arrisku larrian jartzen bait ditu beraien oinarrizko eskubideak.

^[*]Bideohitzaldia



asteazkena, azaroak 25

ZER EKAR DIEZAIROKE `EKO-FEMINISMOAK` ANIMALIEN DEFENTSARI?

ALICIA PULEO

Filosofo ekofeminista. Valladolideko Unibertsitateko Filosofia Moraleko Irakasle Titularra. Europa zein Amerikako hainbat unibertsitatetan Irakasle Gonbidatua. Idatzita ditu bi funtsezko errealitate lotzen dituen lanak: *ekologia* eta *feminismoa*. Besteak beste, nabarmentzekoa da bere liburua *‘Ecofeminismo para otro mundo posible’*.

Ekofeminismoa gogoeta eta praxirako modu banguardista gisa ageri zaigu. Honela izanik, baita identitate eta garrantzi propioak dituzten errealitateen arteko elkargunea dugu ere: *Feminismoa*, *Ekologismoa* eta –bere arlo batzuetan– *Animalismoa*.

‘Zaintza etika’ren berbalorazioa, eta ohiko gizakioi dagokigunaren definizioaren berraztertzea zein patriarka genero estereotipoak klabeak omen dira ‘gainerako’ animaliekiko zanpatze eta ustiatze harremanak.



osteguna, azaroak 26

TAUROMAKIA: IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

FERMÍN ESPARZA

Ekonomia Zientzietan lizentziatua. Egun, ziberaktibista. Bere garaian, zezenketen aurkako lehen web orriaren egilea izan zen. Bi hamarkada baino gehiago daramatza animalien aldeko guneetan zein sare sozialetan parte hartzen, non jorratzen dituen oinarrizko kontuak: balore heziketa, salaketa edota kontzientziazioa.

Behin eduki bazuen, bada denbora luzea tauromakiak zentzua izateari utzi ziola. Orain arte mantendu arren, zenbait faktorek adierazten digute bere desargerpena hurbil egon litekeela. Hau esatea `gehiegikeriatzat´ jo behar al da, ala balorazio objetibotzat, ordea?

Tauromakia mendetan zehar nazio identitate ikurra eta mundu mailako estetika eta kultura erreferentea izan bazen ere, argi dirudi azken urteotan norabide aldaketa nabarmena ari dela ematen.

Bere iragana ezagutzen dugu. Eta erne gaude etengabe bere oraina aztertzeko asmoz, bertan bait da etorkizun hurbila (akaso betikoa?).

